BALDINTZA TEKNIKOAK: EIBARKO BIDE PUBLIKOAN IBILGAILUAK HERRESTAN ERAMATEKO ZERBITZUA KONTRATATZEA (GARABI ZERBITZUA)

1. Kontratuaren xedea.

Kontratu honen xedea da urriaren 30eko 6/2015 Legegintzako Errege Dekretuan jasotako kasuetan —Trafikoari, Ibilgailu Motordunen Zirkulazioari eta Bide Segurtasunari buruzko testu bategina—, azaroaren 21eko 1428/2003 Errege Dekretuak onartutako Zirkulazio Araudi orokorrean, Eibarko Udaleko zirkulazio ordenantzan eta ordenantza fiskaletan eta horrela jokatzea ahalbidetzen duten legezko eta arauzko beste xedapen batzuetan sartuta egon litezkeen era guztietako ibilgailuak erretiratzeko zerbitzua kontratatzea.

Era berean, Ibilgailuak jasoko dira istripuetan laguntzeko kasuetan eta beste gertakari publikoetan, eta baita Udaltzaingoko agenteek, dagozkien organoetan jatorria duten agindu orokor eta partikularren arabera, erabakitako beste egoeretan ere. Helburu horretarako ibilgailutzat hartuko dira arauetan definituta dauden guztiak, edozein direlarik haien ezaugarriak edo pisu gordina.

Jarduera nagusia bide publikoetan eta udalak trafiko gaietan eskumena duen lekuetan gauzatuko da.

2.- Garabiak: ezaugarri teknikoak.

Adjudikaziodunak ibilgailuak dauden tokitik kenduko ditu ibilgailuak erretiratzeko, herrestan eramateko eta garraiatzeko egokiak diren ibilgailuen bitartez. Ibilgailu horiek era guztietako arauzko baimenak, azterketa teknikoak eta beren jarduerarako beharrezko diren gainontzeko baldintzak izan beharko dituzte. Adjudikazioduna derrigortuta egongo da 3.500 kg. arteko pisu gordina duten ibilgailu guztiak erretiratzera. Adjudikaziodunak erretiratu beharreko ibilgailuak duen tamainagatik, pisu handiagoa duelako eta abarrengatik herrestan eramateko edo lekualdatzeko bitartekorik edukiko ez balu, kontratatu egin beharko luke.

Ibilgailuaren ezaugarriak, ekipamenduak, homologazioak, baimenak eta abar zehaztuko dituzte lizitatzaileek beren eskaintzetan, eta Udalak eskatu ahal izango du ezartzen diren koloreetako akabera ematea, eta baita egoki irizten diren tokietan eta forman armarriak eta logotipoak

PLIEGO DE CONDICIONES TÉCNICAS PARA EL SERVICIO DE ARRASTRE DE VEHÍCULOS EN LA VÍA PÚBLICA EN EIBAR (SERVICIO DE GRÚA).

1,- Objeto del Contrato.

El objeto del contrato lo constituye la contratación del servicio de retirada de toda clase de vehículos que pudieran estar incursos en los casos contemplados en el Real Decreto LEGISLATIVO 6/2015 de 30 de octubre-Texto Refundido de la Ley sobre Tráfico, Circulación de Vehículos a Motor y Seguridad Vial-, Reglamento General de Circulación aprobado por Real decreto 1428/2003, de 21 de noviembre, Ordenanza de Circulación y Ordenanzas Fiscales del Ayuntamiento de Eibar y otras disposiciones legales y reglamentarias que permiten dicha actuación.

Asimismo las actividades esenciales de retirada serán llevadas a cabo en los supuestos de auxilio a accidentes y demás calamidades públicas, y en todas aquellas situaciones dispuestas por los y las agentes de la Policía Municipal en virtud de órdenes generales o particulares dimanantes de los órganos correspondientes. A estos efectos se entenderá por vehículos, todos aquellos que así estén definidos en las normas, cualquiera que sean sus características o peso bruto.

La actividad principal se ejercerá en las vías públicas y lugares donde el Municipio sea competente en materia de tráfico.

2,- Grúas: Características técnicas.

El servicio de retirada de los vehículos afectados se realizará por el adjudicatario con vehículos aptos para la retirada, arrastre y transporte, los cuales deberán contar con todo tipo de autorizaciones reglamentarias, inspecciones técnicas y demás requisitos para su actuación. El adjudicatario estará obligado a retirar todos los vehículos con un peso bruto de hasta 3.500 kg. En la hipótesis de no disponer el adjudicatario de medios para arrastrar o trasladar algún vehículo por sus dimensiones, mayor peso, etc., deberá proceder a la contratación de aquéllos.

Su diseño, características, equipamientos incorporados, homologaciones y autorizaciones, etc… serán definidos por los licitadores en sus respectivas ofertas, pudiendo el Ayuntamiento exigir el acabado en los colores que se determine, así como la adición de los escudos y logotipos en

gehitzea ere, kanpoaldetik identifikatzeko.

los lugares y forma que se estime conveniente para su identificación exterior.

Garabi hori hornituta egon beharko da ibilgailuak —baita bi gurpil dituztenak ere— lotzeko, garraiatzeko eta herrestan eramateko beharrezko dituen tresnez. Gainera, behar diren arauzko homologazio eta baimenak izango ditu, garraio segurua eta egokia bermatze aldera.

Dicho vehículo deberá estar provisto de aparatos para enganche, transporte y arrastre de los vehículos, pertinentes, incluidos vehículos de dos ruedas. Contarán, igualmente, con las debidas homologaciones y autorizaciones reglamentarias a fin de garantizar la seguridad e idoneidad del citado transporte.

Horrez gain, arauzko elementu optikoak eta atoan edo herrestan eraman beharreko ibilgailuetan jartzeko zehazten diren seinaleztapenerako gailu osagarriak izango ditu. Halaber, bete beharko ditu segurtasun, bideetako zirkulazio, aseguru eta lurreko garraioari buruz indarrean dagoen araudiak eskatzen dituen legezko edo arauzko baldintzak. Adjudikazioduna jurisdikzio eskudunak galdatzen dituen eta zerbitzuaren funtzionamenduaren ondorioz sortzen diren kalte guztien erantzule zibila izango da

También dispondrá de los elementos ópticos reglamentarios y dispositivos complementarios de señalización que se determinen al objeto de ser instalados en los vehículos remolcados o arrastrados. Asimismo, deberá cumplir cuantos requisitos legales o reglamentarios sean exigidos por la legislación vigente en materia de seguridad, circulación, vial, seguros y transportes terrestres. El adjudicatario responderá civilmente de cuantos daños sean exigidos por la jurisdicción competente y de que se deriven del funcionamiento del servicio.

3. Zerbitzua emateko ordutegia eta egutegia

3.- Horario y calendario de servicio.

Ordutegia bi txandatan izango da: 8:00etatik 22:00etara, garabia erabilgarri egongo da eta udaltzainen deiei erantzun beharko die 15 minutuko gehienezko denbora tartean. Gaueko ordutegian 22:00etatik 8:00etara (astelehenetik ostiralera), larunbat, igande eta jaiegunetan deiei erantzungo die ahalik eta azkarren eta 30 minutuko denbora tartea gainditu barik.

El horario será de dos turnos: de 08:00 a 22:00 horas, la grúa estará disponible y deberá atender a los requerimientos de los/as agentes en un plazo máximo de 15 minutos. Durante el horario nocturno de 22:00 a 08:00 horas (de lunes a viernes), los sábados, domingos y festivos, atenderá a los requerimientos de servicio con la mayor brevedad posible, no sobrepasando el plazo de 30 minutos.

4. Giza baliabideak

4.- Medios humanos

Adjudikaziodunak kontratatutako zerbitzua betetzeko langileak izango ditu, kontuan hartuta bere ardurapean dauden langileen oporrak, txandak, bajak eta huts egiteak bezalako gorabeherak.

El adjudicatario dispondrá del personal para cumplir el servicio contratado teniendo en cuenta las vicisitudes del personal a su cargo tales como: vacaciones, turnos, bajas, absentismo, etc…

Gainera, zerbitzuaren zuzendaritza bere gain hartuko duen eta Udalaren aurrean bere ordezkaria izango den pertsona bat izendatuko du. Garabian gutxienez gidari bat joango da, herrestan eraman beharreko ibilgailua lotzeko lanak ere egiteko gaitua.

También designará a una persona que asuma la dirección del servicio y actúe como su representante ante el Ayuntamiento. En la grúa irá, al menos, un/a conductor/a, habilitado/a además para ejercer los trabajos de enganche del vehículo a remolcar.

5.- Bitarteko lagungarriak

5.- Medios auxiliares.

Adjudikaziodunak telefono mugikor batez hornitu beharko du langile bakoitza, behar denean Udaltzaingoak lokaliza dezan horren bitartez. Ibilgailuan, gainera, irratia edota talky eramangarria ere jarri beharko da.

El adjudicatario deberá dotar a cada trabajador de un teléfono móvil por medio del cual esté localizado por la Policía Municipal cuando sea preciso. También debe dotarse de emisora en el vehículo y/o talky portable.

6.- Zerbitzua ematea

6.- Prestación del servicio

Garabia libre baldin badago, deitutako tokira joan beharko da lehen aipatutako gehienezko epean, ezinbesteak edo Udalak eskatuz gero egiaztatu beharko dituen beste kasu batzuk ez badira.

La grúa hallándose en situación libre de servicio deberá acudir al punto de requerimiento en el plazo máximo anteriormente indicado, salvo casos de fuerza mayor u otras que deberá justificar a petición del Ayuntamiento.

Adjudikaziodunak, bere zerbitzu-organoen bitartez,

El adjudicatario, a través de sus órganos de

ibilgailuak erretiratuko ditu beti udaltzaina bertan dagoelarik edo Udaltzaingoaren agindu zuzenaz jabeek bide publikoan abandonatuta dauden ibilgailuen kasuan, eta helburu horretarako jarritako Udal Gordailura edo jakinarazten zaion lekura eramango ditu.

Kontratu honen xedeetarako, zerbitzu prestazioa hasita dagoela joko da adjudikaziodunaren ardurapeko langileak, ibilgailu bat herrestan eramateko ager dadin deitu ondoren, ibilgailua jasotzeko elementuak haren azpian, gurpilen ondoan, sartu dituenean; une horretatik aurrera joko da ibilgailua lotutzat (ez da derrigorrezkoa autoa herrestan eramatea eta lekualdatzea).

servicio, retirará los vehículos siempre en presencia de un/a agente de la Policía Municipal, o por orden directa de la misma en los casos de vehículos abandonados por sus titulares en la vía pública, y los trasladará al Depósito Municipal habilitado al efecto o al lugar que se indique.

A los efectos del presente contrato se entenderá por inicio de la prestación del servicio aquella actividad realizada por personal del adjudicatario que, tras ser requerida su presencia para efectuar el arrastre de un vehículo, haya deslizado los elementos de elevación del vehículo bajo el mismo, junto a las ruedas, entendiéndose desde este momento que el vehículo esta enganchado (no es preciso el arrastres y traslado del vehiculo).

Udaltzainburua

El Jefe de la Policía Municipal

PEDRO JAVIER CIARAN DIEZ - 15366523Q

Firmado digitalmente por PEDRO JAVIER CIARAN DIEZ - 15366523Q
Fecha: 2021.06.30 12:36:27 +02'00'